



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## **2015EKO MARTXOAREN 30EKO BILERAREN AKTA**

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2015.03.30.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.  
Zinegotziak:  
Koldobike Gorostiza Uriguen and  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Teodoro Pikabea Zubieta jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mikel Leiza Etxeberria jn.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespina.
- 2.-Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauzatu ahal izateko diru laguntza deialdia.
- 3.-Pascual Oscoz Gonzalez jauna:oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-M.Dolores Alzugaray Sein andrea:oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Rosario Madariaga Michelena andrea:oihan probetxamendu eskaera.
- 6.-M.Esther Burlada Arocena andrea:oihan probetxamendu eskaera.
- 7.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa:Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtzarentzako diru laguntza eskaera.
- 8.-Bake Epaitegiko epaile titularra izendatzeko akordioa.
- 9.-2015eko aurrekontuaren aldaketak.
- 10.-Katastroa aldatzeko onespina.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2015eko martxoaren 6an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,  
ONARTU DUTE.

**2.-HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO (LEHEN HEZKUNTZA-DBH) IKASTETXE PUBLIKOAK HOBETU ETA BIRMOLDATZEKO OBRA PROIEKTUAK GAUZATU AHAL IZATEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.**

Ikusirik 80/2015 Ebazpena, otsailaren 23koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzaren 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzat laguntzak emateko.

Beharrezko diren lanen aurrekontua eta memoria ikusirik, Arantzako eskola Kontseiluarekin egon ondoren (uraren tubo generala eta zenbait ateen markuak eta atek aldatzeko).

Eskolako Kontseiluak egindako aldeko txostena ikusirik,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako eskolan eta eskolarako beharrezkoak diren obrak onartzea.
- 2) Hezkuntza Departamentuari aipatutako memorian deskribatuta dauden obrak egiteko diru laguntza eskatzea.
- 3) Ebazpen hau Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea behar den gainerako dokumentazioarekin.

**3.-PASCUAL OSCOZ GONZALEZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Gai hau mahai gainean utzi da.

**4.-M. DOLORES ALZUGARAY SEIN ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

M. Dolores Alzugaray Sein andreak, Bordako errekan alderdian, 10 zuhaitzen (plataneroak) probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (5. poligonoko 180 eta 5. poligonoko 178. lur zatietan).

M. Dolores Alzugaray Sein andreak, Sominen Borda alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 850 eta 6. poligonoko 281. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) M. Dolores Alzugaray Sein andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerei aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

**5.-ROSARIO MADARIAGA MICHELENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Rosario Madariaga Michelena andreak, Mugarai alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 97. lur zatian).



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Rosario Madariaga Michelena andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **6.-M. ESTHER BURLADA AROCENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

M. Esther Burlada Arocena andreak, Altzaran alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 44. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) M. Esther Burlada Arocena andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **7.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA: GARAPENERAKO NAFARROAKO LANKIDETZA FUNTSARENTZAKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtsarentzako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz 2015eko aurrekontuan ez dela horretarako partidarik aurreikusi.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako proiektuari diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoia dela eta.

### **8.-BAKE EPAITEGIKO EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO AKORDIOA.**

Arantzako Bake Epaitegiko epaile titularren agintzeko epea bukatu denez, berriro epaile bat izendatu behar da hurrengo lau urteetarako

Ikusirik iragarkia 2015eko otsailaren 26ko 39. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela eta bandoen bidez ere.

Ikusirik, epean barne, Esther Burlada Arocena andreak aurkeztu duela eskaera.

Aho batez, eta gehiengoan izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Bake Epaitegiko epaile titularra Esther Burlada Arocena andrea izendatzea proposatzea.
- 2) Akordio hau interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Gobernuko Idazkaritzara bidaltzea.

### **9.-2015EKO AURREKONTUAREN ALDAKETAK.**

Ikusirik Udalak dituen beharra masadora eta generadore bat erosteko.

Kontuan hartuz 2015eko aurrekontuan ez dela aurreikusi horietarako partidarik.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2015eko aurrekontuaren 1. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.

2) Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

#### **10.-KATASTROA ALDATZEKO ONESPENA.**

Ikusirik Nafarroako Lur Zerbitzuak prestatutako txostena Arantzako Udalaren hainbat lur zati aldatzeko eta zuzentzeko (6. poligonoko 345, 9, 265 eta 318. lur zatiak).

Kontuan hartuz helburua trukaketa egitea dela eta katastroa zuzentzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Katastroko planoak aldatzea aipatutako txostenaren arabera.

#### **11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 14. ebazpenetik 22. ebazpena arte).

#### **12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira izan

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

#### **13.-ESTHER BURLADA AROCENA ANDREA: MAHAIK KALEAN JARTZEKO BAIMENA ESKAERA.**

Ikusirik Esther Burlada Arocena andreak aurkeztutako eskaera, Aste Santuan Goiko Karrikan mahaiak jartzeko, eguraldia ona bada.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Esther Burlada andreak baimena ez ematea mahaiak kalean jartzeko, udan bakarrik jartzea nahikoa ikusten delakoz.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Ander Almandoz Indacochea.

